



## Papergintzakoek grebara joan ala ez hilaren 31tik aurrera erabakiko dute



Auto karabana. E. EZEIZA

**TOLOSALDEA** ▶ Akordiorik lortu ez dutenez, batzarrak egingo dituzte

**ELKARRETARATZEA** ▶ Egoera salatuko dute gaur Triangulon ▶ 2

## Erleta eskolako ikasleak izan dira lehenengoak ihoteei ongi etorria ematen

**LEITZA** ▶ Gazteek jaialdia egin zuten, musika eta dantzaz alaiturik; gaur eskean ariko dira eta gauean kontzertuak izango dira ▶ 7



Irubitarte eraitsi eta biribilgunea egingo dute. I. G.

**ZIZURKIL** ▶

## Etxebizitzak eraikiko dituzte, 33 babes ofizialekoak

Orotara 115 etxebizitza dira; Udalak BOEn gaineko kezak argituko ditu ▶ 3

**IBARRA** ▶

## Egitarau oparoa Uzturpe ikastolako Kultur Astearen baitan

Bihartik otsailaren 3ra bitarte ▶ 6



NAIARA GARZIA

## PAPERGINTZA ▶

# Hilaren 31n hasiko dira erabakitzen grebara joan ala ez

ELA, LAB, CCOO eta UGTk adostuta, oraindik Adegirekin akordioetara iritsi ez direnez, batzarrak egiten hasiko dira



Berastegiko Munksjö enpresaren aurrean elkarretaratzea egin zuten atzo eguerdian. E. EZEIZA

## ESTI EZEIZA

Papergintzako enpresen langile batzordeak ez dira adostasun batera heldu oraindik enpresek. Hori dela eta, papergintzako lau sindikatuek, ELA, LAB, CCOO eta UGTk, bat egin dute, eta hil honen 31tik aurrera batzarrak egiten hasiko dira lantegietan, grebara joan edo ez erabakitzeko. Hala ere, horren aurretik, gaur elkarretaratzea egingo dute Triangulo plazan, 11:00etatik aurrera.

Urte honen hasieran hasi ziren mobilizaziotan papergintzako langileak. Atzo, auto karabana egin zuten Tolosatik abiatuta. Hemendik, Hernanin kokatua dagoen Zikuñaga enpresara joan ziren. Jarraian, Adegik Donostian duen egoitzara, eta amaitezko, Berastegi-

ko Munksjö enpresara. Azken honetan elkarretaratzea egin zuten bertako langileek, Gipuzkoako papergintza enprestatiko langile batzordeetako kideekin batera.

Sindikatuetak ordezkarien esanetan, 2006ko hitzarmena sinatu gabe dute oraindik, eta «Adegik ez du hau sinatu nahi». Langileek eskatzen dutena da, urtean sei ordu gutxiago lan egitea, eta soldatak, %1,8a igotzea KPlaz gain. Baina, enpresa batzordearen ustetan, «hau gehiegizkoa da, papergintzaren egoera ez baita ona». Hala, beraiek eskaintzen dutena, lanorduak mantentzea eta KPIaren %127a da. Dena den, sindikatuen ustetan hau ez da guztiz egia, «eskualdeko zenbait enpresak irabaziak ematen baitituzte». Horren adi-

bide ipintzen dituzte Amezketako Aralar eta Munksjö.

Oraindik ere greba egingo duten edo ez zehaztu gabe badago ere, erabakia aurrera eramanez gero, egunak zeintzuk izango liratekeen finkatu dituzte sindikatuek. Lehenengo, otsailaren 17rako deitu dute. Hurrengoa bi egunetako izango litzateke, 24 eta 25ean. Eta azkena, hirukoa, martxoaren 2, 3 eta 4an.

2001ean hasi ziren sindikatuen eta Adegiren arteko negoziaketak. Izan ere, 2000ra arte papergintzako enpresak beste elkarte batean zeuden, baina hau apurtzean sartu ziren Adegiren barruan. Hala, joan den urtetik hona, sindikatuen eta Adegiren arteko negoziaketak etenda daude, eta egun ez dute bilerarik egiten.

## KIROLAK ▶

## Gaur, Beotibar elkarteko Zesta punta partidak

Beotibar zesta punta elkarteko partidak jokatu dituzte gaur eta bihar. Alebiren mailan, Laskorainekoei Zumaian jokatuko dute 17:30ean. Hirukidekoak Donostiako enpresari ariko dira Beotibarren, 18:45ean. Infantiletan, Beotibar taldeak Zumaian jokatuko du 17:30ean. Azkenik, nagusietan, Beotibar 2, Zumaiaren aurka lehiatuko da Mutrikun, 16:00etan.

## GERONTOLOGIKOA ▶

## Gaur, mahai informatiboak ipiniko dituzte

Gaur goiz guztian zehar, Eta orain zer? gerontologikoaren aldeko plataformak mahai informatiboak jarriko ditu. Hauak, Trianguloan, San Frantziskon eta beste hainbat lekutan egongo dira kokatuta. Honela, mahai hauek hurbiltzen diren gerontologikoaren egoerari buruzko informazioa nahiz azken plenoan gertatutakoaren berri jaso ahal izango dute.

## KULTURA ▶

## Phamie Gow entzun ahal izango da Frontonen



Phamie Gow musikaria emanaldietako batean. HITZA

## E. EZEIZA

Phamie Gow musikariak joko du gaur gauean 23:30ean, Fronton kafetegian. Jatorri eskoziarra duen, baina Bartzelonan bizi den 26 urteko artista honek hiru disko kaleratu ditu dagoeneko: *Winged Spirit*, *Lammermuir* eta *Dancing Hands*.

Zenbait adituk talentu handiko gazte bezala deskriba-

tzen dute, bai abeslari nahiz musikari bezala. Laudorio ugari eskaintzen dizkiete kritikoei eta sari ugari irabazi ditu bere ibilbide labur baina sakonean. Abeslari, konpositore eta ekoizle izateaz gain, instrumentu ugari jotzen ditu, horien artean: pianoa, arpa, akordeoia, txirula. Bestalde, Karlos Nuñez, Kepa Junkera, Alasdair Fraser eta Eric Rigler bezalako artistekin jo du.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA




Lizarain zerrategia zegoen lurzorua irudia; atzean Villabonatik Asteasura doan errepidea ikusi daiteke. I. GARCIA

# Lizarain zerrategiko eremuan 115 etxebizitza eraikiko dituzte, 33 babes ofizialekoak

Udalak BOEn inguruan herritarren kezka argituko ditu, otsailetik aurrera



Irubitarte etxea eraitsi eta biribilgune berria egingo dute. I. GARCIA



33 guneak lanak egin ondoren izango duen itxura. HITZA

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo 33 gunean, Lizarain zerrategia zegoen lekuan hain zuzen ere, 115 etxebizitza egingo dituzte, horietatik 33 babes ofizialekoak. Etxebizitzaren zozketan parte hartu nahi dutenek datorren hiletik aurrera dituzten kezka guztiak argitzeko eta beharrezkoa duten informazioa jasotzeko aukera izango dute.

Udal Aholkularitza saileko arduradunak epe honetan zehar sortzen diren gai guztiak jasoko ditu, ondoren Udalak irekiko dituen zerrendetan izena eman ahal izango dute zizurkildarrek. Hala eta guztiz ere, interesa duten guztiak Etxebide Etxebizitza Euskal Zerbitzuan izena emana izan beharko dute aldezturik.

Nahitaezko baldintza hori betetzeko, zozketa honetan parte hartu nahi dutenek Donostiako Andia kaleko Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzara joan beharko dute edo 012 telefono zenbakira deitu. Internet erabiltzea nahiago dutenentzat, etxebide@ej-gves posta elektronikora idatzi ahal izango dute edo [www.etxebide.info](http://www.etxebide.info) webgunean informatu. Izen-emateak lehenbailehen egitae gomendatzen dute, batez ere sortu daitezkeen arazoak ekiditeko.

33 gune horren urbanizazioa egiteko, Villabonatik Asteasura doan errepide ondoan kokatzen den Irubitarte etxea botako dute. Bertan, biribilgune berri bat egingo dute. Irubitarten bizi direnei etxearen azalera berdineko etxebizitzak emango dizkiete ordainetan.

Udalak azaldu duenez, hirigintza jarduera honek bultzada nabarmena jaso du, berriki Gipuzkoako Foru Aldundiak Arau Subsidiarioen aldaketa puntual bat onartu izanagatik. «Lizarain zerrategi zaharraren urbanizazioak bizi gehiago ekarriko dio eremu guztiari, non saltokiak irekitzea ere zurrikosten den» azaldu du Udalak. Babes ofizialeko eraikinek hiru pisu, behe solairu bat eta sotoa izango dituzte.

ANOETA ▶

## Txakurren gorotzak jasotzeko dio Udalak

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak bando bat argitaratu du txakurren jabe jendez, bere animalien gorotzak jasotzeko eskatuz. «Gure kaleetako hainbat txokotan txakurren gorotzekin topatzen gara maiz, eta, egia esan, hori ez da inoren gustukoa», dio bandoak. «Horregatik zuen laguntza eskatu nahi dizuegu errealitate hau aldatzeko».

Hala, Udalak txakurren gorotzak jasotzeko zabor poltsa bereziak emango dizkie txakurrak dituzten guztiak. Poltsa hauek doan banatuko dituzte, eta eskuragarri egongo dira ondorengo tokietan: udal bulegoak, liburutegia eta kiroldegia. Herria «Txukunagoa» izateko poltsak erabiltzeko deia luzatzen du Udalak.

Bestalde, bando berdinean, kaleko katuei janaririk ez emateko eskatzen du Anoetako Udalak.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

## I. Ibilaldi neurtua bihar, Jesusen Bihotzakoe

ERREDAKZIOA

Jesusen Bihotza Ikastolaren I. Kultur Astearean baitan ibilaldia antolatu dute bihar, ekitaldiei amaiera emanez. Bi ibilbide izango dituzte: 09:30ean ibilbide luzeari emango zaio hasiera eta 10:30ean ibilbide laburrari. Irteera eta amaiera Txermin-ego ikastolan izango dira.

**ARAMBURU**  
Alokatzeko (Tolosa).  
Pisua 2 logeekin Tolosa erdian.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Garajeak. Araba etorbidean, lurre auzoan eta Antonio Maria Labayen kalean.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Lokalak, Arbol de Gernikan, Foruen kalean eta Laskorain kalean.  
Salgai (Irura). Lokala Kale Nagusian.  
Salgai (Tolosa). Belardenda, Kale Nagusian, negozioa martxan.  
Salgai (Tolosa).  
Lurre auzoan, Olizinarako, klaseak emateko, etab. Lokal txikia. Oso modu onean.  
Salgai (Tolosa). Lokalak Enperadore kalean eta Kale Nagusian.  
Salgai. Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarra.  
Salgai (Tolosa). Garajeak. Leidor auzian.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK  
Jogurta  
Mahala baserría - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633



ALEGIA ▶ ERAKUSKETA

# Gauza arruntekin artea eginez

Alegiko jubilatuen tabernan Isabel Mujikaren margolanak daude ikusgai

## NEREA URBIZU

Tolosarra eta Tolosa. Hori da Alegiko jubilatuen tabernan ikus daitezkeen margolanak. Isabel Mujika tolosarrak 15 margolan ditu erakusgai, otsailaren 12ra arte.

Alegian ikus daitezkeen mihise gaineko margolanak ezberdinak dira haien artean: ia denak dira paisaiak, baina batzuk xehetasunetan oinarritzen dira. Tolosako txokoak daude, baina beste batzuk objektuak dira, gauzak. Esate baterako, loreontziak edo marmitak; azken hauek loreekin daude apainduta, objektu hotzei berotasuna emanez.

Tolosako Kultur Etxean ikasten du margotzen, duela 20 bat urtez geroztik: «Seme-alabak kozkortu zirenean hasi nintzen ikasten, baina txikia nintzenen oso gustoko nuen margotzea». Beraz, pintzela eskuetan hartzen ia aditua da tolosarra. Gainera, egunero margotzen saiatzen da.

Kostaldeko hainbat paisaia ere ikus daitezke Alegiko erakusketan: margolari ia gehienek aukeratzen ohi duten Kontxa eta arrantzarekin loturikoak. Kasu honetan, *Txitxarro* eta

## MARGOLANAK

Margolanak ezberdinak dira haien artean: ia denak dira paisaiak baina xehetasunetan oinarritzen dira batzuk

## KOSTALDEA ERE BAI

Kostaldeko hainbat paisaia ikus daitezke: gehienek aukeratzen duten Kontxa eta arrantzarekin loturikoak

## KOLOREA

Artistaren margolanetan falta ezin diren koloreak horia, berdea, gorria, urdina eta zuria dira

*Arrantzale-emakumea*. Giza-kiak irudikatzen dituen eguneroko bizitzako egoeratan daude: erakusketan daudenean arrantzalea lanean ikus daiteke, eta bestean, berriz, sukaldean. Azken koadro honetan aspaldiko sukalde irudikatu nahi izan du Isabel Mujikak, hau da, duela mende batzuetakoa, hori arropetan eta sukaldean bertan nabaritzen. Koloreak ere ilunak dira, Velazquez margolariaren koadroetan ikus daitezkeen antzekoak, alegia.

Erretratoak ere egiten ditu tolosarrak, baina bere ustetan «hauek egitea zailena da». Izan ere, «paisaiak egiten dituzunen askatasuna daukazu, modu ezberdinetan interpretatu dezakezu ikusten duzuna, baina erretratoetan ardura handiago duzu».

Margolana egiteko «mementu hori berezia da: denbora etengo balitz bezala da. Margolanaren barruan sartzen naiz eta ez dut beste ezer gogoratzen. Beste mundu batean, oso mundu ederrean egongo banintz bezala da». Margolari askorentzat bezala, «oso aberasgarria eta gomendagarria» da margotzea. «Mundu guztiak dauzka arazoak eta honek asko laguntzen du, ehuneko ehunean». Baina aitortzen du ere «oso beharrezkoa» dela pazientzia, «beti ez baita nahi duzuna ateratzen».

## Kolorearen garrantzia

Bere koadroetan falta ezin diren koloreak hauek dira: horia, berdea, gorria, urdina eta zuria. Baina berak dioen bezala, «argazkiak erabiltzen ditut margolanak egiteko gehiengetan, baina ez da kopia bat: koloreekin asko jokatzen dut. Esaterako, elurra egiteko garaian ez dut zuria bakarrik erabiltzen, moreak ere jartzen baitizkiot».

Artistaren margolanak otsailaren 12ra arte egongo dira Alegiko jubilatuen tabernan ikusgai eta salgai, eta urte osoan zehar, berriz, Tolosako Cafes Egian dauzka margolan batzuk.



**Antzinako sukalde.** Eguneroko bizitza irudikatu du sukalde honetan: sukaldeko beroan, animaliak, janaria eta familia osoa elkarrekin. Duela mende batzuetako egoera izango litzateke. ISABEL MUJIKA



**Urkiu.** Gaurko eguna izan zitekeen Urkizuko paisaia: elurra mendian eta teilatuetan. Elurra irudikatze ez du zuria bakarrik erabili, ordea. I. M.



**Marmitak.** Tresna zaharra loreez apaindurik gehiago edertzen du margolana, marmitaren berezko funtzioa ia alde batera utziz. I. MUJIKA



**Txitxarro.** Margolan honetan argi ikusten da xehetasuna bilatzen duela artistak kasu askotan. Gorriarekin berotasuna eta suaren isla egiten du. I. MUJIKA



*"Konpainia egin digu bakar-bakarrik sentitu garenean."*

*"Gurekin igoaldi askotan ibilia da mugikar hau. 100 gramo besterik ez du pisatzen, baina han goian oso garrantzitsua da. Konpainia egin digu bakar-bakarrik sentitu garenean. Himalaia, Annapurna, Gran Capitán... Eta oraindik igo behar ditugunak!"*

*Ikertov Eneko Lou Josure*

*Denontzat da telefonía mugikar berria.*

Eskatu informazioa saltokietan edo 1717 telefono-zenbakian.

euskaltel   
ZURETZAT

## IBARRA ▶ KULTURA

MADDI SOROA

Zazpigarren urtez jarraian Ibarrrako Uzturpe ikastolak Kultur Astea antolatuta du bihurtik hasi eta otsailaren 3ra arte, ikastolako haur eta haurren gurasoentzat bereziki, bai eta parte hartu nahi duen ororentzat ere.

Ikastolako zuzendariak Joakin Zugastik adierazi duenez, Kultur Astearen helburu nagusia «Ibarrraldean gizarte eragile izatea da, bide horretan haur eta gurasoei kultura eskaintzen zaielarik». Gurasoen kasuan bereziki, «gure asmoa gai ezberdinen inguruan formazioa eskaintzea da».

Parte-hartzeari erreparatu, urtez urte parte-hartzaileak ugari direla azaldu du Zugastik eta aurrera begira «horrelako ekintzak antolatzen jarraituko dugu» gaineratu du.

Kultur ekitaldi oparoa izango da aukeran datozen egunetan. Esanguratsua izango dira, ordea, gurasoei zuzendurik antolatuta diren hitzaldiak. Horietan lehena etzi Maria Jose Ortizek, EHUko Hezkuntza eta Garapen ebolutiboan titularrak denak adimen emozionalaren inguruan eskainiko duena da. Hitzaldi honen helburua, egunero bizitzan ematen diren egoera ezberdinak egokitzeko emozioek duten indarra era jakintsuan erabiltzen jakitea da.

## Elikadura ere hizpide

Asteartean Olatz Aldabaldetrekuk jolas kooperatiboak zer eta zertarako diren ezagutzeko eta jolasekin esperimentatzeko tailerra eskainiko du. Asteazkenean, berriz, Gipuzkoako Goi Mendi Eskolako irakasle den Jaime Eguzkitzak GPSaren erabilaren inguruko hitzaldia eskainiko du.

Elikaduraren txanda izango da ondoren, Ordiziako D'elikatuz eikarteko (elikadura eta gastronomia gunea) dietista bat ariko delarik hizlari lanean baita ikastolako jangelako sukaldaria ere. Nagusiki ikastolako jangelaren inguruan burutuko da hitzaldia.

# Hamaika ekitaldi Uzturpe ikastolako Kultur Astean zehar

Bihartik hasita otsailaren 3a bitarte adin eta gustu ezberdineko lagunentzat hamaika ekitaldi izango da herrian



lazio Kultur Astean Azeptitiko ingurumen etxera egindako mendi ibilaldiko irudia. HITZA

## EGITARAUA ▶

**BIHAR, IGANDEA**

**09:00.** 10 kilometroko Lazkao-Lazkao mendi irteera izango da. Autobusa plazatik abiatuko da (2 euro).

**ETZI, ASTELEHENA**

**18:30.** Adimen Emozionala lelopean hitzaldia eskainiko du Maria Jose Ortizek, EHUko Hezkuntza eta Garapen ebolutiboko titularrak Udaltzeko Pleno Aretoan.

**URTARRILAK 30, ASTEARTEA**

**18:30.** Jolas Kooperatiben tailerra izango da sei eta hamabi urte bitarteko haurren gurasoentzat Kultur Etxean. Olatz Aldabaldetrekuko pedagogoa eta Kometako kidea izango da bertan.

**URTARRILAK 31, ASTEAZKENA**

**11:00.** Ikastolako ikasleei zuzenduriko etorkinen inguruko dokumentala (Eritrea) Ibarrratik

Misio Taldearen eskutik Uzturpe ikastolan.

**18:30.** GPSaren erabilaren inguruko hitzaldia Kultur Etxean Jaime Eguzkitza Gipuzkoako Goi Mendi Eskolako irakaslearen eskutik.

**OTSAILAK 1, OSTEGUNA**

**18:30.** Zaindu dezagun haurren elikadura! lelopean hitzaldia eskainiko du D'elikatuz elikadura zentroak. Kultur Etxean.

**OTSAILAK 2, OSTIRALA**

**22:00.** Aukeran dantza taldearen Bideak ikuskizuna Belabieta Kiroldegian.

**OTSAILAK 3, LARUNBATA**

**11:00-14:00 eta 16:00-18:00.** Haur festa (0-12 urte) kiroldegian: gaztelua, puzgarriak, txirrista, euskaraokoa, etab.

**Aste osoan zehar:** *Kurdistan: itzaleko herrialdea* argazki erakusketa Ibarrrako Kultur Etxean.

## IBARRA ▶

## Lauburuk Durango hartuko du gaur etxean

Zaletuen laguntza beharrezkoa izango da nahi eta ez irabazi beharreko partidari

## ERREDAKZIOA

Lauburu areto futbol taldeak Durangoko Sasikoa hartuko du gaur arratsaldeko seiretan etxean, Belabietan. Hila-bete eta erdi pasa ondoren, azkenean etxean jokatzeko aukera izango du taldeak.

Ibartarrek nahi eta ez irabazi beharreko norgehiagokak dute aurrean, ezin baitute puntu gehiagorik galdu. Azken hilabeteko partidetan emaitza txarrekin etxeratu da taldea, punturik gabe eta animoz baju, jada ez baitu txapelketa irabazteko aukerarik. Liga, ordea, ez da oraindik amaitu eta aurrera egin beharko dute jokalariek. Bide horretan, ezinbestekoa izango da zaletuen babesa eta laguntza, egoerari buelta eman ahal izateko beharrezkoa baita jokalariek indarberrituta egotea.

Taldeko jokalariei batzuk min hartuta daudenez, bali-teke gaurko partidari Txubelek gazteren bat zelairatzea.

## OREXA ▶

## Txerri festa herrian usadio zaharrak mantenduz

M. SOROA

Orexako emakumeek, usadio zaharrak mantenduz txerri festa antolatu dute gaur egun osorako. Goizean goiz txerria hiltzarekin batera, zatikatu eta odolkiak prestatzen hasiko dira plaza inguruan. Ondoren, bazkaria izango da eta jarraian herri kirolak, haurrentzat, berriz, jolasak. Aldi berean, emakumeek usadio zaharra irakatsiko die bertaraturikoei. Iluntze alderako afari legea egingo dute Astiaran anaiak trikitilarien musikaz alaiturik. Eguraldiaren arabera aldatuak egon daitezkeela adierazi dute herritarrek.

## iragarki laburrak ▶

**SALGAI**

**Duplexa.** Duplex berria salgai Amezketan. 3 logela, egongela-jangela, sukalde eta komon handiak, trasteleku bikoitza eta 23.000m<sup>2</sup>ko garajea. 300.000euro. 647 41 51 76ra.

**ALOKAIRUAN**

**Etxebizitza.** Leku berri 60 m<sup>2</sup>ko pisua alokatzen da. Egongela, baingulea, sukalde eta bi logela.

Interesatuak deitu 679 20 14 60 telefonora.

**BESTERIK**

**Zakurrak.** Bi hilabeteko arratoi-zakurrak oparitzen dira. Deitu 645 70 68 21ra.

**LANA**

**Gitarra-jolea.** Erromeri talde batek gitarra-jolea behar du. Deitu 665 70 17 75 telefono zenbakira.

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inkesta.** Noiz hasten zara prestatzen ihauterietako mozorroak? Sagardotegietara joateko ohiturarik ba al duzu? Zer iruditzen zaizu Abel Barriola Txapelketatik at geratzea? Hauek eta beste galdera gehiago zain dituzu gure webguneko inkesta atalean. Sartu eta eman zure iritzia.



## LEITZA ▶ IHOTEAK



**Zanpantzarrak.** Zanpantzarrak Nafarroako inauterietako herri askotako simbolo dira. Eskolako kale-jiran horrelakoak ikustea ohikoa da. NAIARA GARZIA



**Txistua.** Txistulariak ez dira inoiz falta herriko jai eta kale-jiratan. N. GARZIA



**Txantxoak.** Umeen artean bi talde atera ziren txantxo jantzita, batzuk txilabarekin, besteak, zakuarekin. N. GARZIA



**Umeak.** Ikasle txikiak lotsatienak izan arren, gurasoen begirunea errez lortzen dute soinean dituzten koloreekin. N. GARZIA



**Kalejira.** Musikaren laguntzarekin herrian gora joan ziren umebo guztiak, eskutik hartuta, dantzatzu. N. GARZIA

# Ikasleak ihoteak agurtzen lehengoak

Erleta eskolako ume eta gaztetxoak izan dira inauteriei ongi etorria ematen lehengoak, guztira, 188 ikasle

NAIARA GARZIA

Iritsi dira ihoteak herrira. Eta urtero bezala, Erleta eskolako ikasleak izan dira hauek ospatzen lehengoak. Atzo arratsaldean, kalejira egin ondoren, jaialdi bat ospatu zuten Amazabal pilotalekuan.

Ihoteak berez gaur hasten diren arren, herriko gaztetxoek atzo jada ospatu zituzten. Erleta eskolako 188 ikasleak

mozorrotu eta kalera atera ziren jantzien kolore biziekien txokoak alaitzera. Hasiera batean, elurra eta izotzarengatik kalejira bertan behera uzteko asmotan egon baziren ere, azkenean kalera ateratzea erabaki zuten. Eta honela, zanpantzarrak, txantxoak... eskolatik abiatu eta herrian gora joan ziren txistua lagun zutela. Villa-Paulinan buelta hartu ondoren, Amazabal pilotalekura itzuli zi-

ren, gurasoak atzetik zitzutela, ihoteei ongi etorria ematera.

Txikitxoak izan ziren jaialdian dantzatzeko lehengoak, txantxoak. Ondoren beste bi talde aritu ziren, eta besteak beste, sorgin-dantza dantzatu zuten.

Jaialdia amaitu ondoren ume eta gaztetxoak behera jeitsi ziren, gozokiren bat harrapatze-ko asmoa eta denon gozame-nerako musika jarri zuten.

Erleta eskolako ikasleak otegunera arte jai izanen dute, eta asteartean beste festa bat eginen dute.

## Iritsi direla

Ailegatu dira, beraz, 2007. urteko ihoteak. Usadio zaharrei eutsiz, gaur arratsaldean eskean ibiliko dira herrian, etxez- etxe, 16:00etatik aurrera, trikitilari, akordeoi-jole eta txistularien laguntzarekin. Astelehen eta asteartean baserrietara igoko dira goizetik hasita.

Gaur, bestalde, iluntzeko 20:00etan Doneztebeko Perkusio Taldea kalejiran ibiliko da, eta eguna amaitzeko, Gazteboak antolatuta, kontzertu bikoitza izanen da Atekabeltzan, 00:00etan Exum eta Nukat taldeak zuzenean ariko baitira. Atsaretuak, behintzat, ez daitetzela falta!

## LEITZA ▶

## Otsailean hiru film ikusi ahalko dira zineman

N. GARZIA

Inauterietako etenaldiaren ondoren, herriko zinemako arduradunek beste hiru film aukeratu dituzte otsailerako. Emanaldiak ohiko orduan izanen dira, ostiraletan, 22:30ean, eta igandetan, 19:30ean.

Otsaileko emanaldietarako film hagitx ezberdinak aukeratu dituzte, aukera ahal bezain zabala izan dadin. Martin Scorsese zuzendari italiarraren *Infiltrados* filma izanen da eskainiko duten lehenengoa, otsailaren 2an eta 4an. Dayton eta Paris zuzendarien *Pequeña Miss Sunshine* bigarrena (otsailaren 9an eta 11n botako dute).

Azkenik, Carlos Iglesiasen *Un franco. 14 pesetas* filma eskainiko dute, otsailaren 23an eta 25ean.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423  
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003  
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

### Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaeran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

### Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egotza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Berrobi.** Udalak, talo-jana antolatu du, 18:00etatik aurrera, Etxolan.  
**Tolosa.** *Ahatexo itsusia* antzezlanaren eskainiko dute Leidor aretoan 17:00etatik aurrera.  
**Tolosa.** Phamie Gow-ren harpa kontzertua Fronton kafetegian 23:30etik aurrera.  
**Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete Aranburu jauregian.  
**Zizurkil.** Loatzo Musika eskolak txalaparta ikastaro bat antolatu du 12 urtetik aurrerakoentzat.  
Interesatuak 10:00etatik 16:00etara Zizurkilgo bulegoan (Bulandegi bidea, 23 behea) edo 943 692619 zenbakian eman dezakete izena.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Derecho de familia* filma eskainiko dute Leidor aretoan, 19:30ean eta 22:30ean.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Elpuentea (lehen Carlos Puente de Ambrosio) artistaren pintura eta eskultura erakusketa ikusgai, Aranburu jauregian.  
**Tolosa.** *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* izeneko erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian, otsailaren 24ra arte.  
**Alegia.** Isabel Mujika tolosarraren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira ikusgai, otsailaren 12ra arte.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

**IRRATIA**

**Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Hitzak hegana.*

**Goiko irrateria (107.0 FM)**  
12:00. *korrera.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan ez irizien erantzukizunik.



**Joselu Anduezari «omenaldi beroa», San Bernardoren eskutik**

**TOLOSA ▶** Joan den larunbatean Joselu Anduezari omenaldia egin zioten San Bernardo Skaut taldeko partaide eta partaide ohiek. 80 lagun inguru bildu zen San Bernardo taldekoek «eskerrak eman» nahi izan zizkieten «gozatu eta ikasi dugun guztiagatik». Irteere-tan, asteburuetan, kanpamenduetan, bileretan, baita Inauterietan ere «izandako umorea» eta urte hauetan guztietan taldeari «emandako guztia» eskertu nahi izan zioten Anduezari. Guztion harnas beroa eta oroiarririko bat jaso zituen azken honek. **HITZA**

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Aimar Artola Otegi  
(Abaltzisketa). Gaur 4 urte.  
Muxu asko familiaren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



**jantzi**  
**hitza**ren  
**jertseak**

HITZAren egoitzetan salgai